



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

LEHIAKETA IREKI BIDEZ ETA HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA, HIRI-HONDAKINAK JASO ETA GARRAIATZEKO IBILGAILUZ HORNITZEKO ESPARRU HITZARMENAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA.

AURKIBIDEA

I KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1. Klausula. Araubide juridikoa.....	4
2. Klausula. Esparru-hitzarmenaren xedea.....	4
3. Klausula. Lehiaketaren oinarrizko aurrekontua.....	5
4. Klausula. Kontratugilearen profila.....	5

II KAPITULUA- LEHIAKETA

5. Klausula. Kontratatze gaitasuna eta enpresak aukeratzeko irizpideak.....	5
6. Klausula. Esleipen-prozedura.....	6
7. Klausula. Esleitzeko irizpide objektiboak.....	6
8. Klausula. Proposamenak eta aldaerak aurkeztea.....	6
9. Klausula. Proposamenen forma eta edukia.....	7
10. Klausula. Aurkeztutako dokumentazioa sailkatzea, aukeratze-irizpideak balioestea eta proposamenak irekitzea.....	11
11. Klausula. Esleipen-proposamenaren ondorioak. Uko egitea edo atzera egitea.....	12

III KAPITULUA – ESLEITZEA ETA GAUZATZEA

12. Klausula. Behin betiko bermea.....	13
13. Klausula. Esparru-hitzarmena esleitzea.....	3
14. Klausula. Esparru-hitzarmena hobetu eta gauzatzea.....	15

IV KAPITULUA – ESPARRU-HITZARMENA EXEKUTATZEA

15. Klausula. Esparru-hitzarmenaren indarraldia.....	16
16. Klausula. Esparru-hitzarmena aldatzea.....	16
17. Klausula. Esparru-hitzarmena bertan behera uztea.....	16
18. Klausula. Esparru-hitzarmena besterentzea.....	17

V KAPITULUA – KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

19. Klausula. Prezioa ordaintzea.....	17
20. Klausula. Prezioak berrikustea.....	17
21. Klausula. Kontratatari dagozkion betebeharrak, gastuak eta zergak.....	17
22. Klausula. Lan-betebeharrak eta betebehar sozialak.....	18

VI KAPITULUA – ESPARRU-HITZARMENA GAUZATZEA

23. Klausula. Esparru-hitzarmena amaitzea.....	18
24. Klausula. Behin betiko bermea itzuli eta ezeztatzea.....	18
25. Klausula. Esparru-hitzarmena ezeztatzea.....	18
26. Klausula. Administrazioaren eskumenak, erabakien berraztertzea eta epaimahai eskudunak.....	19

VII KAPITULUA – ESPARRU-HITZARMENEAN OINARRITUTAKO KONTRATUAK

27. Klausula. Galdu-gordean jarduteko printzipioa.....	20
28. Klausula. Administrazio-baldintza berezien eta baldintza teknikoen agiriei lotzea.....	20
29. Klausula. Hornidura zuzendu eta berrikustea.....	21
30. Klausula. Esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuak esleitzea.....	21
31. Klausula. Prozedura.....	22
32. Klausula. Zigorrek kontratuko eginbeharrak ez betetzeagatik.....	22
33. Klausula. Kontratataren erantzukizuna kalte-galerengatik.....	23
34. Klausula. Kontratua betetzea eta ondasunak jasotzea.....	23
35. Klausula. Berme aldia.....	24
36. Klausula. Akatsak edo hutsuneak berme aldian.....	24
1. ERANSKINA. Lote-zerrenda.....	25
2. ERANSKINA. Esparru-hitzarmenaren ezaugarriak.....	26
3. ERANSKINA. Proposamen ekonomikoaren eredua.....	31

LEHIAKETA IREKI BIDEZ ETA HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA, HIRI-HONDAKINAK JASO ETA GARRAIATZEKO IBILGAILUZ HORNITZEKO ESPARRU-HITZARMENAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA.

**LEHENENGO KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK**

1. Klausula. *Araubide juridikoa.*

Baldintza-agiri honek arautzen duen esparru-hitzarmenak administrazio izaera du; baldintza-agiri honek eta baldintza teknikoen agiriak diotenari berariaz lotzen zaizkio aldeak.

Bi baldintza-agiriekin kontratu izaera dute, eta beraz, esparru-hitzarmena gauzatzeko egintzan, esleipendunak baldintza-agiria sinatu egin behar du ados dagoela erakusteko.

Baldintza-agiriekin aurreikusten ez dutenari dagokionez, Estatuko kontratu publikoari buruzko oinarrizko legeriak esaten duenari lotuko zaio esparru-hitzarmena: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 3/2011 Legegintzako Errege-dekretu bidez onartutako testu bateratua (SPKLTB), azaroaren 14koa; eta SPKLTBek dioenaren aurka egiten ez duen heinean, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena (urriaren 30ekoa), Herri Administrazioetako Kontratuen legeko Araudi Orokorraren bidez, zeina urriaren 12ko 1098/2001 Errege-dekretu bidez eta (HAKLAO) horren arau osagarrien bidez onartu baitzen. Osagarri gisa, oinarrizko izaera ez duten kontratu publikoari buruzko estatuko arauak eta administrazio-zuzenbideko gainontzeko arauak aplikatuko dira, eta horiek ezean, zuzenbide pribatukoak.

2. Klausula. *Esparru-hitzarmenaren xedea.*

Esparru-hitzarmenaren xedea da baldintza-agiri honetako 1. eranskinean ageri diren ibilgailuez hornitzeko baldintzak zehaztea, eta horiek lortzeko prozedura erabakitzea, akordio honetan oinarritutako kontratuen bidez.

Esparru-hitzarmena esleitzean jakingo da zein hornitzaileari erosiko zaizkien aipatu ibilgailuak. Mankomunitateak ez du ibilgailu kopuru jakin bat erosteko konpromisoa hartuko, akordioa indarrean dagoen bitartean izan daitezkeen beharren menpe dagoelako; eta beraz, kontratistek ezin dute baldintza gisa jarri eskaerak kopuru jakin batekoak izatea edo gutxieneko zenbateko bat eskatzea.

3. Klausula. *Lehiaketaren oinarrizko aurrekontua.*

Esparru-hitzarmen honetako ibilgailuentzat, lehiaketako oinarri gisa, **1 eranskinean** zehaztutako gehienezko kopuruak ezarri dira unitate bakoitzeko. Zenbateko horietan sartuta daude esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratu guztiak egoki eta erabat exekutatzeko kontuan hartu beharreko balioespen-faktore eta gastu guztiak, Balio Erantsiaren gaineko zerga izan ezik.

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoen artean (BEZ gabe), lehiaketaren oinarrizko zenbateko hori baino handiagoak direnak baztertu egingo dira.

Esparru-hitzarmenetik eratorritako kontratuen exekuzioa babesten dute **2. eranskineko 3. atalean** zehaztuta dauden kredituek.

4. Klausula. *Kontratugilearen profila.*

Kontratazio-organoko kontratugilearen profila Mankomunitateko webgunean (www.debagoiena.com) ikusi ahal izango da.

II KAPITULUA **LEHIAKETA**

5. Klausula. *Kontratatzeko gaitasuna eta enpresak aukeratzeko irizpideak.*

Esparru-hitzarmen horren esleipendunak izateko aukera izango dute pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, norbanako gisa edo aldi-baterako enpresa-elkarte gisa; guztiak izan behar dute jarduteko gaitasun osoa, ez dute loturarik izan behar SPKLTBren 60. artikulua administrazioarekin kontratatzeke aipatzen dituen debeku eta bateraezintasunekin, eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa ziurtatu behar dute, **2. eranskineko 5. atalak** dioenaren arabera, non, era berean, enpresak aukeratzeko aplikatuko diren irizpideak zehaztu baitira, HAKLAOko 11. artikuluaekin bat etorritik. Irizpide horiek betetzen direla ziurtatuko da atalean bertan ageri diren bitartekoekin.

Eta gainera, pertsona juridikoak direnean, berezkoak zaizkien helburu edo jarduera-eremuek barnean hartu behar dituzte baldintza-agiri honen xede den esparru-hitzarmeneko zerbitzuak, betiere beren estatutu edo sortze-arauekin bat etorritik.

Erkidegotik kanpoko enpresa atzerritarrek SPKLTBko 55.1 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte gainera.

6. Klausula. *Esleipen-prozedura.*

Esparru-hitzarmena lehiaketa ireki bidez eta hainbat irizpideren arabera esleituko da, SPKLTBko 138.2, 157 eta 150. artikulua aplikatuta.

7. Klausula. *Esleitzeko irizpide objektiboak.*

Esparru-hitzarmena esleitzeko kontuan hartuko diren irizpide objektiboak **2. eranskinen 7. atalean** daude, garrantzia handiagotik gutxiagora ordenatuak.

8. Klausula. *Proposamenak eta aldaerak aurkeztea.*

Lehiaketan parte hartu nahi duten enpresaburuak proposamenak aurkeztu beharko dituzte lehiaketa iragarkiak zehaztutako epean eta lekuan, eta baldintza-agiri honetan azaldutako eran; ildo horretatik, aplikagarria izango da HAKLAOko 80. artikulua dioena.

Debagoieneko Mankomunitatearen webgunean, www.debagoiena.com, esparru-hitzarmen honi dagokion lehiaketa-deialdiari buruzko informazioa eskainiko da, administrazio-baldintza berezien eta baldintza teknikoaren agiriak, eta dokumentazio osagarria barne hartuta.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako klausulak, eta baita esparru-hitzarmen hau arautzen duten baldintza teknikoak ere, inolako salbuespenik gabe.

Enpresaburu bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, jarraian ageri denaren kalterik gabe:

- Esparru-hitzarmena lotetan banatua dagoenez, 1. eranskinean ageri diren lote guztientzako eskaintza aurkeztu ahal izango da, edo horietako batentzako nahiz hainbatentzako eskaintzak.

- **Lote bakoitzeko eskaintza-aldaera bat onartuko da gehienez ere.** Edonola ere, eskaintza-aldaerak oinarritzko eskaintzako kaxa trinkotzaile bera izango du, eta xaxisaren ezaugarriak bakarrik aldatuko dira (marka, modeloa, ezaugarri teknikoak, eta abar).

Lote bakoitzarentzako eskaintza ekonomikoak ezingo du gainditu **1. eranskinean** ezarritako gehienezko lehiaketa-prezioa.

Lehiaketan parte har daiteke aldi baterako enpresa-elkartea sortuz. Nolanahi ere, enpresaburu bat bere kabuz aurkeztu bada, ezingo da, aldi berean, aldi baterako enpresa-elkarte batean aurkeztu, ezta enpresa-elkarte bat baino gehiagoko kide gisa agertu ere.

Aurreko debekuren bat hautsiz gero, enpresaburuak sinatutako proposamen guztiak atzera botako dira.

9. Klausula. *Proposamenen forma eta edukia.*

Proposamenak euskaraz edo gaztelera idatzita aurkeztuko dira, edo hizkuntza horietakoren batera itzulita; **HIRU GUTUN-AZAL** aurkeztuko dira, itxita eta eskaintzaileak edo ordezkatzan duen pertsonak sinatuta, eta gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean hau jarri behar da:

- Esparru-hitzarmenaren deitura:

HIRI-HONDAKINAK JASO ETA GARRAIATZEKO IBILGAILUZ HORNITZEKO ESPARRU-HITZARMENA

- Gutun-azal bakoitzaren zenbakia eta deitura:

1. GUTUN-AZALA. ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTAZIOA.

2. GUTUN-AZALA. BALIO-JUDIZIOA EGIN BEHARRA DAKARTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

3. GUTUN-AZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Eskaintzailearen izen-abizenak edo enpresaren helbidea eta dagokion NAN edo IFZ.

Gutun-azal bakoitzaren barruan orri independente batean jarriko da edukia, zenbakien bidez adierazita. Gutun-azaletan dokumentazio hau aurkeztu behar da:

A) 1. GUTUN-AZALA “ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTAZIOA”.

1.- Jarduteko gaitasuna

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa balitz, merkataritza-erregistroko eratze- edo aldaketa-eskrittura, betiere baldintza hori galdagarria balitz aplikagarria zaion merkataritza-

legeriaren arabera. Galdagarria ez balitz, eratze-eskultura edo –dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza, non bere jarduera erregulatzen duten arauak agertuko baitira, dagokion erregistro ofizialean inskribatuak, eta baita ere, Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK); aurreko guztiaren kopia originala edo, indarreko legediaren arabera, benetako izaera duen kopia, edo funtzionario eskudunak konpultsatutako fotokopia.

1.2.- Enpresaburua norbanakoa izanez gero, NAN edo horren ordezeko dokumentua, indarreko legediaren arabera benetako izaera duen kopian, edo funtzionario eskudunak konpultsatutako fotokopia.

1.3.- Espainiarrak ez baina Europar Batasunekoak diren enpresaburuen kasuan, edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko izenpetzaileak izanez gero, jarduteko gaitasuna ziurtatu beharko dute erregistro profesional edo merkataritzako erregistro batean inskribatuta egotearen egiaztagiria aurkeztuz, haien estatuko legeriak baldintza hori eskatuz gero; edo bestela, hornidura-kontratuentzat HAKLAOren 1.2 eranskinen idatzita dauden ziurtagiriak aurkeztuz.

Sektore publikoarekin kontratuak egiteko gaitasuna izango dute espainiarrak ez baina Europar Batasunekoak diren enpresak, baldin eta eskatzen den zerbitzua betetzeko gaitasuna badute, eta betiere, beren herrialdeko legeriak dioenaren arabera. Zerbitzu jakin hori eman ahal izateko, enpresa horiek finkatuta dauden estatuko legeriak baimen bereziren bat izatea edo erakunde jakin bateko kidea izatea eskatzen badu, enpresek baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

1.4.- Aurreko paragrafoan kontuan hartu ez diren atzerriko enpresak izanez gero, Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko da, edo bestela enpresa finkatua dagoen estatuko Espainiako Kotsuletxeko Bulegoaren txostena; baina horretarako, aurrez enpresak egiaztatu beharko du tokiko Erregistro profesionalean, merkataritza-erregistroan edo antzekoan inskribatuta dagoela, edo bestela, kontratuaren helburua betetzeko jardueren esparruan ohiko jarduera duela.

Era berean, Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren txostena aurkeztu beharko dute, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko akordioaren estatu sinatzaileetako bat dela ziurtatzeko, betiere arau harmonizatupeko kontratuak izanez gero, edo, aurkako kasuan, SPKLTBko 55.1 artikulua aitpatzen duen elkarrekotasun txostena.

2. Ahalordeak

Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek edo pertsona juridiko baten ordezkariak direnek, horretarako ahalorde nahikoa dutela egiaztatu beharko dute. Era berean, ahalordea jaso dutenek NANaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute. Ordezkaritza ziurtatzen duen dokumentuak ahalmenen behin betiko eskuordetzea ahalbidetuko balu, merkataritza erregistroan inskribatua egon beharko du.

3.- Kontratatzeke debekuren batean sartuta ez egotearen adierazpena

3.1.- Enpresaburuak (pertsona fisikoa izanez gero) edo enpresak, horren administratzaileek eta ordezkariak (pertsona juridikoa izanez gero), nahiz proposamenaren sinatzaileek SPKLTBren 60. artikuluan ageri diren kontratatzeke debeku eta bateraezintasunekin loturarik ez dutela dioen adierazpen arduratsua. Adierazpen horrek berariaz esango du indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela.

4.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa ziurtatzea.

Eskaintzaileek kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko baldintzak ziurtatu beharko dituzte **2. eranskineko 5. atalean** idatzita dagoen moduan eta bitartekoekin. Atal horretan bertan azalduta daude aukeratze-irizpideak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa ziurtatzeko bitartekoen arabera.

Kaudimena ziurtatzeko, enpresaburuak beste entitate batzuetako kaudimena eta bitartekoak erabili ahal izango ditu, horiekin izan ditzakeen lotura juridikoak gorabehera; nolana ere, kontratua exekutatzeke bitarteko horiek dituela ziurtatu beharko du.

Enpresaburuaren aldi baterako elkarrean kaudimena erabakitzeke, kide bakoitzak ziurtatutako ezaugarriak batuko dira.

5.- Egokia izanez gero, jakinarazpenetarako helbide elektronikoa.

6.- Enpresaburuaren elkarteak.

Hainbat enpresaburu aldi baterako enpresa elkarte baten bidez aurkeztuz gero, elkarte horretako kide bakoitzak ziurtatu beharko du jarduteke gaitasuna, eta horretarako, guztiek aurkeztu beharko dituzte klausula honek eskatzen dituen dokumentu guztiak;

horiekin batera, konpromiso-idatzi solidarioa aurkeztu behar da, eta bertan idatzita agertuko dira elkartearen osatzen duten enpresaburuen izenak eta egoerak, bakoitzaren partaidetza portzentajea eta elkartearen ordezkari edo ahalorde bakar bat, zeinak Administrazioan ordezkari osoa izango baitu kontratua indarrean dagoen denboran. Aipatu dokumentua elkartearen osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak sinatuko dute.

7.- Atzerriko enpresen eskumena.

Atzerriko enpresek adierazi beharko dute Espainiako edozein ordenatuko Epaitegi eta Auzitegien agindupean jartzen direla kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitezkeen gertakari guztietarako, eta beraz, eskaintzaileek haiei dagokien jurisdikzio-foroari uko egingo diote.

8.- Eskaintzaileen erregistroa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria indarrean duten eskaintzaileek ez dute beren izaera edo jarduteko gaitasunari buruzko dokumentaziorik aurkeztu beharko kontratazio-deialdietan, ez eta ordezkariari, kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz kontratatzeke debekuetan sartuta edo ez egoteari buruzko dokumentaziorik. Kasu horretan, aipatu ziurtagiriarekin batera, eskaintzaileak adierazpen arduratsua aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi beharko du ziurtagiriak dioena ez dela aldatu.

B) 2. GUTUNAZALA: BALIO-JUDIZIOA EGIN BEHARRA DAKARTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Balio-judizioa egin beharra dakarten esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa sartuko da gutun-azal horretan, **2. eranskinen 8. atalean** azaldutako dagoena hain zuzen.

C) 3. GUTUNAZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Gutun-azal horrek proposamen ekonomikoa izango du; proposamena idazteko baldintza-agiri honen 3. eranskinean ageri den eredu hartuko da kontuan, eta eredu horretan ageri diren argibideek eskatzen duten guztia izango du proposamenak. Eskaintza kontuan hartu ahal izateko, administrazioak funtsezkoa jotzen duena argi ulertzea eragozten duten ahazte, akats

edo zirriborroak dituzten proposamenak ez dira onartuko. Proposamenen bat ez baletor bat aztertua eta onartua izan den dokumentazioarekin, lehiaketako oinarritzko prezioa baino handiagoa izango balu, ezarritako eredia asko aldatuko balitz, proposamenaren zenbatekoetan akats nabarmenen bat balego edo eskaintzaileak onartuko balu proposamena bideraezina egiten duen akats edo bateraezintasunen bat duela, Kontratazio-mahaiak atzera botako du; eta hori ez da nahikoa arrazoi izango ereduko zenbait hitz baztertu, aldatu edo ez esateko, esan nahi dena aldatzen ez bada behintzat.

Esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuetako zerbitzu guztiak betetzeko enpresak egin beharko dituen gastu guztiak eskaintzako prezioan sartuta daudela ulertuko da, ondorio guztietarako; aipatu gastuen artean daude gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, muntaia-lanak eta bilgarriak jartzea, eskaintzailearen konturako langileen ordainsariak, egiaztatze- eta proba-gastuak, tasak eta indarrean dauden era guztietako zergak nahiz esparru-hitzarmena indarrean dagoen denboran ezarri edo alda daitezkeen guztiak, BEZ-a izan ezik, zeina sail independente batean esleituiko baita.

Era berean, gutun-azal horretan sartuko da formula bidez automatikoki balioetsi daitezkeen esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa.

10. Klausula. *Aurkeztutako dokumentazioa sailkatzea, aukeratze-irizpideak balioestea eta proposamenak irekitzea.*

Kontratazio-mahaiak aurrez aztertuko du 1. gutun-azalaren edukia, eta denbora barruan nahiz modu egokian aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu.

Helburu horrekin, eskaintzaileen gaitasunari eta kaudimenari buruzko azalpenak edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira, eta horiek guztiak bost egutegi-egunen barruan aurkeztu beharko dira, 22. artikulua dioen lez. Mahaiak ahoz eskatuko dizkie azalpenak edo informazio osagarria interesatuei, eta gainera, Mankomunitateko iragarkitaulan ere jarriko da, kontratugilearen profilean. Era berean, mahaiak jakinaraziko du aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak daudela, eta horrenbestez, eskaintzaileek hiru lanegun izango dituzte horiek zuzentzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta ikusitako akats edo hutsuneak konpondu eta gero, baldintza-agiri honetan azalduta dauden aukeratze-irizpideetara egokitzen diren enpresak zehaztuko ditu Kontratazio-mahaiak, eta berariaz esango du nortzuk izan diren onartuak eta nortzuk baztertuak, eta baita baztertuak izateko arrazoiak ere.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bosgarren laneguneko hamarretan 2. gutun-azala irekiko da, balio-judizioa egin beharra dakarten irizpideei buruzko

dokumentazioa duena hain zuzen; baina epea larunbatean amaituko balitz, hurrengo astelehenean irekiko litzateke, eta eskaintzailearen batek gutun-azala postaz bidaliko balu berriz, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 80. artikulua aipatzen duen epea amaitu eta hurrengo lanegunean irekiko litzateke gutun-azala. Kontratazio-mahaiak beharrezkoak iritzitako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, eta baldintza-agiri honetan azalduta dauden balioespen-irizpideen bidez balioetsiko ditu proposamenak.

Azkenik, kontratazio-mahaiak 3. gutun-azala irekiko du jendaurrean, deitutako lekuan, egunean eta orduan; 3. gutun-azalak proposamen ekonomikoa du, eta baita automatikoki balioesteko beste irizpide batzuei buruzko dokumentazioa ere. Ekitaldi horretan balio-judizioa egin beharra dakarten irizpideei emandako balioaren berri emango da.

11. Klausula. *Esleipen-proposamenaren ondorioak. Uko egitea.*

Kontratazio-mahaiaren esleipen-proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako enpresaburuari, eta beraz, ez du administrazioarekiko eskubiderik izango esparru-hitzarmena formalizatu artean.

Lehiaketa esleitu baino lehen, kontratazio-organoak kontratua ez egitea erabakiko balu, edo prozedurarekin ez jarraitzea erabakiko balu, eskaintzaileei izan dituzten gastuak ordaindu beharko zaizkie, baina horretarako, aurrez eskaera aurkeztu beharko da, dagokion balioespen ekonomikoaren frogarekin.

III. KAPITULUA **ESLEITZEA ETA GAUZATZEA**

12. Klausula. *Behin betiko bermea.*

Proposamen ekonomiko abantailatsuenak aurkeztu dituzten eskaintzaileek behin betiko bermea eratu eta kontratazio-organoaren esku jarri beharko dute. Aipatu bermearen zenbatekoa lehiaketarako aurreikusitako oinarrizko aurrekontuaren %5 izango da, BEZ gabe, eta proportzionalki banatuko da lote eta esleipendunen artean. Eskaintzaileek 10 lanegun izango dituzte aipatu bermea eratzeko, administrazioaren eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, behin betiko bermeak SPKLTBko 100. artikuluko kontzeptuei erantzungo die.

Behin betiko bermea eratzeko SPKLTBko 96. artikulutik 99. artikulura bitartekoek diotena hartuko da kontuan.

Esparru-hitzarmen honetan oinarritutako kontratuek lehiaketa honetako oinarrizko aurrekontu teorikoa bikoiztuko balute, esleipendunak behin betiko bermea osatu beharko du hasieran eskatutako zenbatekoaren baliokidearekin, 15 egutegi-egunetan, enpresaburuari akordioaren berri ematen zaion egunetik kontatzen hasita; era horretan, esparru-hitzarmeneko oinarrizko aurrekontu teorikoarekin proportzio egokia gordeko da, eta horrela ez bada, hitzarmena bertan behera geratuko da.

13. Klausula. *Esparru-hitzarmena esleitzea.*

Proposamen ekonomiko onena egin duten eskaintzaileei esleituko die esparru-hitzarmena kontratazio-organoak, eta horretarako esleipen-irizpideak hartuko ditu kontuan. Akordioa ixteko gehieneko zein gutxieneko enpresaburu kopurua 2. eranskineko 10. atalean dago idatzita, betiere onartutako interesatuen kopurua nahikoa bada edo esleipen-irizpideak betetzen dituzten eskaintza onargarri nahikoa badago; edo bestela, esparru-hitzarmena esleitu gabe utzi ahal izango da, edo lote bat edo batzuk esleitu ahal izango dira proposamen onargarririk ez dagoenean.

Esleipenduna aldi baterako enpresa elkarte izanez gero, eskritura publiko bidez eratu dela ziurtatu beharko du, eta elkarte horren IFZ ere aurkeztu beharko da. Edonola ere, elkarreak esparru-hitzarmena amaitu arte iraungo du.

Proposamen ekonomiko onenak aurkeztu dituzten eskaintzaileek ziurtatu beharko dute, kontratazio-organoak hala eskatuta, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela, eta horretarako hamar lanegun izango dituzte. Aurrekoa ziurtatzeko dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

Zerga-betebeharrak:

- a) Jarduera Ekonomikoen Zergan, esparru-hitzarmenaren xedeari dagokion epigrafean, alta eman izanaren originala edo kopia konpultsatua, betiere zerga horri lotutako jardueretan arituz gero; dokumentu original edo kopia horrek aurtengo ekitaldikoa izan behar du, edo bestela, azken ordainagiria aurkez daiteke, eta horrekin batera, baita aipatu zergan bazarik ez dela eman dioen adierazpen arduratsua ere.

Zerga hori ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu pasiboek adierazpen arduratsu bat aurkeztu beharko dute salbuespenaren arrazoia azaltzeko. Legegintzako 2/2004 Errege Dekretu bidez, martxoaren 5koa, onartu zen Tokiko Ogasunak arautzeko legearen testu bateratuko 82.1 artikuluko e) eta f) ataletan idatzitako salbuespenen batekin bat etorrituz gero, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziak salbuespena eman zioneko ebazpena aurkeztu beharko du.

Taldeek eta aldi baterako elkarteek zergan alta emanda daudela ziurtatu beharko dute, eta horrek ez du esan nahi elkarte horiek osatzen dituzten enpresek ez dituztenik ordaindu behar dagozkien zergak.

b) Dagokion organoak egindako ziurtagiri positiboa, HAKLAOko 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

Betebeharrak Gizarte Segurantzarekin:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak egindako ziurtagiri positiboa, HAKLAOren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

Era berean, hamar egun baliiodunen barruan, behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta baita lehiaketa-iragarkien ordainketari dagozkien ziurtagiriak ere; beharrezkoa izanez gero, kontratuaren exekuziorako hitzemandako baliabideak badituztela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Esparru-hitzarmena bi hilabeteetan esleituko da gehienez ere, proposamenak irekitzen diren egunetik kontaktzen hasita, eta premiazko espedienteei buruz SPKLTBren 112.2 b) artikulua dioena baztertu gabe.

Behin aipatu dokumentazioa behar bezala aurkeztu denean eta behin betiko bermea eratu denean, kontratazio-organismoak kontratua esleituko du dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliiodunen barruan; edonola ere, esleipena berrikusi ahal izango da kontratazio gaitako errekurtsu bereziaren bidetik.

Esparru-hitzarmena esleitu eta helegiteak jartzeko garaia amaitzean, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa esleituak izan ez diren eskaintzaileen eskura jarriko dira. Eskaintzaileek ez badute dokumentazioa jasotzen esleipenaren berri eman eta hurrengo hiru hilabeteetan, administrazioak ez du dokumentazio hori zaintzeko betebeharririk izango, behin behineko bermearen eratze-dokumentuak izan ezik, horiek gorde egingo baitira interesatuen esku uzteko.

14. Klausula. *Esparru-hitzarmena hobetu eta formalizatzea.*

Esparru-hitzarmena formalizazioaren bidez hobetuko da.

Esleipendun bakoitzarekin esparru-hitzarmen bat sinatuko da administrazio-dokumentu batean, hamabost egun baliodunen barruan, esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Esparru-hitzarmena kontratazio gaietako errekurtsio bereziaren bidetik aztergarria izanez gero, formalizazio-eskaera jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan formalizatuko da akordioa, aurreko paragrafoan errekurtsioak aurkezteko aurreikusitako epea amaitu eta kontratuaren formalizazioa bertan behera uztera behartzen duen errekurtsorik aurkeztu ez bada, edo bertan behera uzteko erabakia atzera bota bada.

Esparru-hitzarmena eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatuz gero, eta hortik eratorritako gastuak kontratistaren beraren kontura izango dira. Kasu horretan, kontratistak aipatu dokumentuaren kopia egiaztatua eta kopia arrunta helarazi beharko dizkio administrazioari, akordioa formalizatu eta hilabeteko epean gehienez.

IV. KAPITULUA **ESPARRU-HITZARMENA EXEKUTATZEA**

15. Klausula. *Esparru-hitzarmenaren indarraldia.*

Esparru-hitzarmena indarrean egongo da 2. eranskineko 12. atalean ageri den egunera arte. Denbora horretan, esparru-hitzarmeneko ibilgailuei buruz jasotzen dituzten hornidura-eskaerei erantzun beharko diete esleipendunek.

16. Klausula. *Esparru-hitzarmena aldatzea.*

Behin esparru-hitzarmena hobetuta, eta interes publikoko arrazoiak direla medio, kontratazio-organoak zenbait aldaketa egitea erabaki dezake, I liburuko V tituluak aurreikusitako kasuetan eta moduan; eta hori guztia, SPKLTBko 211. artikuluan araututako prozedurarekin bat etorritik egin beharko da, espedientean behar bezala arrazoituz.

Erregimenari dagokionez, SPKLTBko 106, 107, 108, 210 eta 219. artikuluek diotena beteko da.

zehaztuta daude aurreikusitako aldaketen baldintzak, irismena, eta mugak.

2. eranskineko 13. atalak aurreikusi gabeko aldaketaren bat egiteko, nahitaezkoa da SPKLTBko 107. artikulua aurreikusitako baldintzetakoren bat batera gertatzea. Aldaketa horiek ezingo dituzte bestelakotu lehiaketa eta esleipeneko oinarritzko baldintzak, eta aldaketa

horiek beharrezko egiten dituen arrazoi objektiboari erantzuteko behar-beharrezkoak direnak bakarrik egingo dira.

17. Klausula. *Esparru-hitzarmena bertan behera uztea.*

Interes publikoko arrazoiak direla medio, esparru-hitzarmenaren exekuzioa bertan behera uztea erabaki ahal izango du administrazioak. Era berean, hitzarmena bertan behera geratuko da SPKLTBko 216.5 artikulua aurreikusitako egoera gertatuko balitz. Esparru-hitzarmena bertan behera uztearen ondorioei dagokienez, SPKLTBko 220. artikulua dioena hartuko da kontuan.

18. Klausula. *Esparru-hitzarmena besterentzea.*

Esleipendunek hirugarren baten esku utz ditzakete esparru-hitzarmenetik eratorritako eskubide eta betebeharrak, betiere SPKLTBko 226. artikulua aurreikusitako egoerak eta baldintzak betetzen badira.

V. KAPITULUA KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

19. Klausula. *Prezioa ordaintzea.*

Administrazioari eman zaizkion eta hark behar bezala jaso dituen ondasunen prezioa jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, SPKLTBko 293. artikulua diotenaren arabera. **2. eranskineko 14. atalean** azalduta daude kontratu honetarako ordainketa modua eta baldintzak.

20. Klausula. *Prezioak berrikustea.*

Prezioak ez dira berrikusiko.

21. Klausula. *Kontratistari dagozkion betebeharrak, gastuak eta zergak.*

Kontratistaren kontura dira hauetatik eratorritako gastuak: zergak, lehiaketa-iragarkiak, hala buletinetan eta aldizkari ofizialetan nola edozein hedabidetan, esparru-hitzarmena eskritura publiko bihurtzea, eta hornidura gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak. Era berean, esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratu guztiak betetzeko enpresak egin beharreko gastuak bere gain hartu beharko ditu, hala nola, orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere konturako langileen

ordainsariak, egiaztatzeak eta probak, tasak eta era guztietako zergak, BEZa eta, indarrean dagoen denboran, esparru-hitzarmenaren exekuziotik erator daitekeen beste edozein.

Berariaz idatziz jaso da eman beharreko ondasunak garraiatu eta jakinarazitako lekura helarazteko gastuak kontratistaren kontura izango direla.

22. Klausula. *Laneko betebeharrak eta gizarte-betebeharrak.*

Kontratatistak laneko gaitan eta gizarte segurantzian indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, eta halaber, minusbaliatuen gizarteratzeari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak; aurrekoaren ildotik, hauek hartuko dira kontuan: laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 legea, azaroaren 8koa; aurreko legearen 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioari buruzkoa, garatzen duen 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa; segurtasun eta osasunaren arloko Europako legea, prebentzioaren esparruan aplikagarria dena; eta esparru-hitzarmenaren exekuzioan ateratzen direnak.

VI. KAPITULUA

ESPARRU-HITZARMENA GAUZATZEA

23. Klausula. *Esparru-hitzarmena amaitzea.*

Kontratatistak esparru-hitzarmena bete duela joko da aipatu hitzarmenaren indarraldia amaitzerako hitzarmenaren xedea bete badu, bertan idatzitako baldintzekin bat etorritik eta Administrazioaren aurreikuspenak aseta.

24. Klausula. *Behin betiko bermea itzuli eta ezeztatzea.*

Esparru-hitzarmenaren indarraldia amaitzean, kontratazio-organoak hitzarmenaren xedea bete dela dioen aurretiko txostena egitean, eta eman beharreko ondasunen berme aldia amaitu denean, eta betiere behin betiko bermearen gainean gauzatu beharreko erantzukizunik ez bada, bermea itzultzeko edo abala ezeztatzekeo ebazpena emango da, MEKPAOren 24. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Esparru-hitzarmenaren amaiera-datatik urtebete igaro eta, oraindik, harrera egin ez bada kontratatistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, bermea itzuli edo ezeztatuko da, betiere SPKLTB-ko 76. artikuluan ageri diren erantzukizunak gertatu ez badira, eta HAKLAOko 65.3 artikulua dioenaren kalterik gabe.

25. Klausula. *Esparru-hitzarmena ezeztatzea.*

Esparru-hitzarmena ezeztatzeko arrazoiak dira SPKLTBko 85, 223 eta 299. artikuluetan idatzita daudenak:

- Administrazioarekin kontratatze baldintzak gerora galtzea.
- Administrazioaren ikuskatze-gaitasunak oztopatzea.
- Kontratazio-organuari aldez aurretik ez jakinaraztea esleitutako ondasunei eragiten dien eskaintza edo kanpaina bereziren bat egitea pentsatzen ari dela, izan sektore publikorako zein pribaturako.
- Ondasunak emateko ezarritako gehienezko epeak ez betetzea behin eta berriz.
- Ondasunak emateko garaian baldintza-agiri honetan azalduta dauden prozedurak kontuan ez hartzea.

Ofiziozko kontratazio-organok esparru-hitzarmena ezeztatzea erabakiko du, edo kontratugileak eskatuta ezeztatuko da, HAKLAOko 109. artikulua lege ezarritako moduan.

Esparru-hitzarmena ezeztatzearen arrazoiak kontratugilearen ez-betetze erruduna izanez gero, administrazioari sortutako kalte eta galeren ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina bermearen gainean gauzatuko da, eta bermeak estaltzen ez duen zenbatekoa kontratazio-organuari ordaindu beharko du.

Hitzarmena ezeztatzeko arrazoiak aplikatzeko SPKLTBko 224. artikulua eta HAKLAOko 110. artikulua diotena hartuko da kontuan, eta ondorioetarako berriz, SPKLTBko 225. eta 300. artikuluek diotena.

26. Klausula. *Administrazioaren eskumenak, erabakiak berraztertzea eta auzitegi eskudunak.*

1. klausulak dioenaren arabera, esparru-hitzarmen honek izaera administratiboa du. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, interpretazioaren, aldaketaren, ondorioen eta iraungitzearen inguruan sor daitezkeen gaiak erabakitze eskumena du kontratazio-organuari, betiere mugen barruan eta legeak ezarritako baldintzak betez.

SPKLTBko 40. artikulua aurreikusitakoaren arabera, esparru-hitzarmena arau harmonizatupean egonez gero (2. eranskineko 4. atalean azalduta dago hori), kontratazio-organuari errekurtso berezia jarri ahalko zaie lehiaketa-iragarkiei, kontratazioa eta esleipena arautuko dituzten baldintzak erabakitzen dituzten baldintza-agiriei eta kontratuko

dokumentuei, eta kontratazio-prozedurarako izapide-egintzei, horiek erabakitzen baitute, zuzenean edo zeharka, esleipena edo prozedurarekin aurrera jarraitzeko ezintasuna; beste batzuetan izapide-egintza horiek babesgabetasuna edo kalte konponezina sortzen diete eskubide edo interes legitimoiei; ondorio horietarako guztietarako, izapide-egintzak jotzen dira eskaintzaileak baztertzeko kontratazio-mahaiaren erabakiak.

Baldintza-agirietan aurreikusi gabeko kontratuko aldaketekin lotura duten egintzen aurka ezingo da kontratazio arloko errekurtsio berezirik aurkeztu, aipatu aldaketek kontratua ezeztatu eta beste lehiaketa bat antolatzea eragiten duten edo ez gorabehera; izan ere, SPKLTBko 105. eta 107. artikuluko artekoei esaten dutenaren arabera, behin kontratua eslehituta, beharrezkoa izan daiteke aldaketak egitea.

Kontratazio arloko errekurtsio bereziak hautazko izaera du, eta helegitea jartzeko idazkia aurkeztu ahal izango da kontratazio-organismoaren erregistroan edo erabakitzeko eskumena duen organismoarenean, baina, aurrez, horren berri eman behar zaio idatziz kontratazio-organismoari; idatzia aurkezteko hamabost egun baliodun daude, SPKLTBko 44. artikuluko diotenaren arabera kontratuko direnak. Ebazpena zuzenean gauzatu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa bakarrik jarri ahal izango da.

Errekurtsio berezirik onartzen ez duen kontratazio-organoko egintzak eta SPKLTBko 40. artikuluko kontuan hartzen ez dituen kontratuetan idazten direnak, berehala gauzatu ahal izango dira, eta horrenbestez, amaiera emango zaio administrazio-bideari. Ebazpen horien aurka aukerako berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko apean, ebazpenaren berri eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita; edo bestela, erabakia zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean.

VII. KAPITULUA

ESPARRU-HITZARMENEAN OINARRITUTAKO KONTRATUAK

27. Klausula. *Galdu-gordean jarduteko printzipioa.*

SPKLTBko 215. eta 292. artikuluek diotenarekin bat etorrituz, esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuak kontratugilearen gain eta kontura egingo dira.

28. Klausula. *Administrazio-baldintza berezien eta baldintza teknikoaren agiriari lotzea.*

Esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuak baldintza-agiri honetako klausulekin eta preskripzio tekniko berezien agiriarekin bat etorrituz gauzatuko dira, administrazioak, kontratuko arduradunaren bidez, horiek interpretatzeko eman ditzakeen jarraibideak kontuan hartuz. Kontratugilea izango da emandako ondarearen kalitatearen arduraduna, eta baita

kontratuaren exekuzioan gerta daitezkeen ez egiteek, akatsek edo metodo okerrekin administrazioari edo hirugarrenei ekar diezazkiekeen ondorioen arduraduna ere.

29. Klausula. *Hornidura zuzendu eta berrikustea.*

Administrazioak eskumena du esparru-hitzarmeneko xede diren ondasunak ikuskatzeko eta horien fabrikazio- edo ekoizpen-prozesuaren berri izateko; eta gainera, erabiliko diren materialen azterketak, entseguak eta probak agindu edo bere kabuz egin ahal izango ditu, kalitatea kontrolatzeko sistemak ezarri eta esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuak zorrotz betetzeko egoki iritzitako xedapen guztiak emateko eskumena izango du. Kontratuko arduradunak zuzendu eta ikuskatuko du hornidura, edo haren ordeztan, administrazioak izendatutako pertsonak.

30. Klausula. *Esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuak esleitzea.*

Esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuen xede diren ibilgailuak esparru-hitzarmenaren esleipendunari eskatuko zaizkio, beste lehiaketa baterako deialdia egin beharrik gabe. Horretarako, behar diren ibilgailuen esleipenak egingo dira, hurrengo klausulan ezarritako prozeduraren arabera, eta horrenbestez, hornitzaileak ibilgailu horiek ematera behartuta daude.

Kontratistek ez dituzte kontuan hartuko prozedura honetatik kanpo egindako eskaerak, ez eta esleipenaren xede diren artikuluei eragin diezaiaketen aldaketak. Baldintza-agiri honetako 29. klausulak dioenarekin bat etorritik, agindu horiek betetzen ez badira, esparru-hitzarmena ezeztatuko da.

Ibilgailuen ezaugarriak, horien prezioak eta entregatzeko epeak esparru-hitzarmenean idatzitakoak izango dira.

Esparru-hitzarmena indarrean dagoen bitartean, kontratistek denboran eta kopuruan mugatutako eskaintzak proposatu ahal izango dizkiote kontratazio-organoari, esleipenekoak baina baldintza hobetoetan, eta gainera, beharpenak eskaini ahal izango dituzte aleko prezioetan, eskaeraren arabera – eskala-ekonomia-; gauza bera egin ahal izango dute kontratistek egoki iritzitako beste edozein egoeretan, eta, edonola ere, aurrez kontratazio-organoaren onarpena beharko da.

Esleitutako artikuluei buruzko eskaintza bereiziren bat edo kanpainaren bat egin nahi izanez gero, bai sektore publikorako eta baita pribaturako ere, kontratistek aldeztatik jakinarazi beharko diote kontratazio-organoari. Obligazio hori ez betetzeak esparru-hitzarmena ezeztatzea eragin dezake, baldintza-agiri honetako 29. klausulak aurreikusitakoaren arabera.

Kontratazio-organoak, bere kabuz eta kontratistaren adostasunarekin, edo hark eskatuta, esleitutako ondasunen berdina edo antzekoak gehitu ahal izango ditu interes publikoko arrazoiengatik edo teknologia berriarekin nahiz konfigurazioarekin zerikusia duten arrazoiengatik, artikulua berri horiek eskaintzak aurkezteko azken egunaz geroztik merkaturatzen hasi direlako, eta betiere prezioa ez denean esleitutakoa baino %20 handiagoa.

Ibilgailu bakoitza dagokion udalerrian eta lekuan emateko kontratua sinatzen den egunetik aurrera kontatzen hasiko dira ondasunak emateko datak.

31. Klausula. *Prozedura.*

Ibilgailuak eskuratzeko prozedura hau jarraituko da:

- Ibilgailua eskuratzeko beharrezkoa dela justifikatzeko memoria bat egin behar da.
- Gastua baimendu eta erabiltzeko (BE) faseak barne hartzen dituen dokumentua edo kontabilitate-dokumentuak egin eta proposatu behar dira.
- Egokia izanez gero, kontu-hartzaileak gastua fiskalizatuko du aurrez.
- Gastua onartu eta kontabilizatu behar da.
- Esparru-hitzarmenetik eratorritako kontratua esleitu eta sinatu behar da.
- Emandako ondasunak jaso eta prezioa ordaindu behar da, kontratu publikoei eta aplikagarriak diren gainontzeko xedapenei buruzko arau orokorrek dioten eran.

32. Klausula. *Zigorrek kontratuko eginbeharrak ez betetzeagatik.*

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, ez balitu beteko ibilgailuak emateko epeak, administrazioak aukera izango luke kontratua amaitutzat emateko edo **2. eranskineko 16. ataleko** zigorrak ezartzeko.

Zigorrek aplikatu eta ordaintzeak ez du esan nahi administrazioari ez zaionik kalte-ordainik ordaindu behar atzerapenak eragindako kalte eta galerengatik.

33. Klausula. *Kontratistaren erantzukizuna kalte-galerengatik.*

Esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuak gauzatzeko beharrezkoak diren jardueren ondorioz, hirugarrenei, zuzenean edo zeharka, sor dakizkiekeen kalte eta galera guztien erantzulea izango da kontratista. Sortutako kalte eta galerak administrazioak emandako aginduren baten ondorio berehalakoa eta zuzena balira, administrazioa bera izango da erantzulea, legeak ezarritako mugen barruan. Edonola ere, aplikagarria izango da SPKLTBko 214. artikulua dioena.

34. Klausula. *Kontratua betetzea eta ondasunak jasotzea.*

Kontratastak kontratua bete duela joko da baldin eta kontratuaren xedea esparru-hitzarmenean ezarritako baldintzekin bat etorri bete bada, eta administrazioaren aurreikuspenak bete badira.

Inbertsioa egiaztatze aldera, ondasunak lege ezarritako moduan jasoko dira.

Ondasunak ez baleude jasotzeko moduan, idatziz jasoko da jasotze- edo adostasun-aktan, eta kontratastari jarraibide zehatzak emango zaizkio antzemandako akatsak zuzen ditzan edo hitzartutako horniketa egin dezan.

Administrazioari ondasunak eman baino lehen galera, matxura edo kalteren bat izango balitz, kontratastak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, administrazioa ondasunak jasotzean atzeratu ezean. Ondasunak administrazioari eman eta hark, harrera, legeak ezarritako moduan, beranduago eginez gero, administrazioaren ardura izango da ondasunak zaintzea ekintza baten eta bestearen arteko denboran.

Ondasun edo produktu galkorrak izanez gero, behin administrazioak jasotakoan, bere ardura izango da ondasun horiek kudeatzea, erabiltzea edo horien iraungitzea, baina horrek ez du esan nahi hornitzaileak ez duela erantzukizunik ezkutuko akats edo okerrenatik.

35. Klausula. *Berme aldia.*

Ibilgailu bakoitzaren jasotze- edo adostasun-datatik aurrera hasiko da kontatzen berme aldia, eta gutxienez URTEBETEKOA izango da; nolana ere, eskaintzaileek epe handiagoa proposatu ahal izango dute.

Berme aldi horretan behin betiko bermeak bere gain hartuko du SPKLTBko 100. d) artikuluan aipatutako kontzeptua.

36. Klausula. *Ezkutuko akats edo okerrak berme aldian.*

Berme aldiaren egiaztatuko balitz emandako gaietan akatsak edo okerrak daudela, administrariak eskubidea izango du kontratistari eskatzeko ondasun desegokiak birjar ditzala edo konpon ditzala, hori nahikoa izanez gero. Edonola ere, berme aldiaren kontratistak eskubidea izango du emandako ondasunen aplikazioa ezagutzeko eta horri buruz galdetzeko.

Berme aldiaren kontratazio-organismoak erabakiko balu jasotako ondasunak ez direla egokiak aurreikusitako helburua betetzeko, antzemandako akats eta okerrenetatik, eta beti kontuan hartuta, akats edo oker horiek kontratistari egotz dakizkiokeela, eta ondasunak birjartzea edo konpontzea ez litzatekeela nahikoa izango kontratuaren xedea betetzeko, aipatu organismoak uko egin ahal izango die ondasunei berme aldiaren amaitu baino lehen, eta kontratistaren esku utziko ditu; eta horrenbestez, administrazioak ez du ordaindu beharrik izango, eta ordainketa egina izango balu, ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango luke.

EGINBIDEA.- Baldintza-agiri hau Mankomunitate honetako Gobernu Juntak 2012ko apirilaren 26an egindako bileran onartu zirela idatziz jasota uzteko.

**Arrasaten, 2012ko apirilaren 27an
IDAZKARIA**

Izpta. Belen Txintxurreta

**1. ERANSKINA
LOTE ZERRENDA**

Loteak	Deskribapena	Unitateko gehienezko prezioa, BEZ gabe
1	Hiri-hondakinak jaso eta garraiatzeko ibilgailua; kaxaren edukiera garbia 5 m3 izango da gutxi gorabehera, trinkotze-sistematik gabe; 3500 BGMko bi ardatzeko xasis gainean jarria. Karga banatzeko orrazi, pala edo antzekoekin osatutako sistema izatea hobetsiko da.	55.000,00 €
2	Hiri-hondakinak jaso eta garraiatzeko ibilgailua; kaxaren edukiera garbia 8 m3 izango da gutxi gorabehera, toberaren edukieraz gain. Trinkotze-sistema izango du. Kaxa kroskobakarrentzat, edukiera kaxa+ekipamendu klasiko baten tobera multzoaren berdina izango da. Bi ardatzeko xasisaren gainean jarriko da.	90.000,00 €
3	Hiri-hondakinak jaso eta garraiatzeko ibilgailua; kaxaren edukiera garbia 12 m3 izango da gutxi gorabehera, toberaren edukieraz gain. Trinkotze-sistema izango du. Kaxa kroskobakarrentzat, edukiera kaxa+ekipamendu klasiko baten tobera multzoaren berdina izango da. Bi ardatzeko xasisaren gainean jarriko da.	110.000,00 €
4	Hiri-hondakinak jaso eta garraiatzeko ibilgailua; kaxaren edukiera garbia 16 m3 izango da gutxi gorabehera, toberaren edukieraz gain. Trinkotze-sistema izango du. Kaxa kroskobakarrentzat, edukiera kaxa+ekipamendu klasiko baten tobera multzoaren berdina izango da. Bi ardatzeko xasisaren gainean jarriko da.	125.000,00 €
5	Hiri-hondakinak jaso eta garraiatzeko ibilgailua; kaxaren edukiera garbia 20 m3 izango da gutxi gorabehera, toberaren edukieraz gain. Trinkotze-sistema izango du. Hiru ardatzeko xasisaren gainean jarriko da.	135.000,00 €

2. ERANSKINA

ESPARRU-HITZARMENAREN EZAUGARRIAK

1.-Esparru-hitzarmenaren xedearen definizioa.

Esparru-hitzarmenaren xedea da baldintza-agiri honetako 1. eranskinean ageri diren ibilgailuez hornitzeko baldintzak zehaztea eta horiek eskuratzeko prozedura ezartzea, akordio honetan oinarritutako kontratuen bidez.

2.- Organo kontratugilea: Debagoieneko Mankomunitatea

Posta-helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17 ARRASATE (Gipuzkoa)

3.- Lehiaketako oinarrizko aurrekontua eta babesten duen kreditua.

Aurrekontu mota: zenbatetsitako gehieneko aurrekontua.

Zerga-oinarria: 1.560.000 euro

BEZaren zenbatekoa: 280.800 euro

Zenbatekoa guztira: 1.840.800 euro

Urte-saria	Zenbatekoa
2012	743.400 euro
2013	713.900 euro
2014	383.500 euro

Loteen lehiaketako oinarrizko aurrekontua:

<u>Lote zenbakia</u>	<u>Aurreikusitako unitateak</u>	<u>Zerga-oinarria</u>	<u>BEZ-a</u>	<u>Zenbatekoa guztira</u>
1	2	110.000	19.800	129.800
2	3	270.000	48.600	318.600
3	6	660.000	118.800	778.800
4	2	250.000	45.000	295.000
5	2	270.000	48.600	318.600

Kontratuaren balio zenbatetsia (SPKLTBko 88. art.) 1.872.000 euro

Mankomunitatearen ekitaldi honetako aurrekontu orokorreko 3003.624.442.30.01 eta 3004.624.442.40.01 partidek nahikoa kreditu dute kontratu honetatik eratorritako gastuei aurre egiteko.

Era berean, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du nahikoa kreditu gordetzeko hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

4.- Arau harmonizatupeko esparru-akordioa: BAI

5.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa ziurtatzea.

- Instituzio finantzarioen aldeko txostena.
- Arrisku profesionalengatiko kalte ordainetarako aseguruia izatearen egiaztagiria.

Kaudimen teknikoa ziurtatzea:

- Azken hiru urteetan emandako ibilgailuen zerrenda, betiere eskaintzako ibilgailuen antzeko ezaugarriak badituzte; era berean horien zenbatekoa, hornitze-datak eta hartzailea publikoa edo pribatua izan zen zehaztuko da, dagozkien ziurtagiriek batera.

3 urte horietan baldintza-agiri honetan zehaztuta dauden hiri-hondakinak jasotzeko ibilgailuen antzeko ezaugarriak dituzten 5 ibilgailu gutxienez eman izana ziurtatzen ez duten enpresa eskaintzaileen proposamenak ez dira onartuko.

6.- Esleipen-prozedura.

Aldez aurreko izapideak: EZ

Izapideak: ohikoa

Prozedura: irekia

Hainbat esleipen-irizpide

7.- Kontratua esleitzeko irizpide objektiboak.

1. Eskaintza ekonomikoa: %45 .
2. Ezaugarri teknikoak: %25.
3. Ingurumen-ezaugarriak: %15.
4. Zerbitzu teknikoa: %10.
5. Berme aldia: % 5.

A) **Aipatu irizpideen** artean, balio-judizioa egin beharra eskatzen dutenak, eta automatikoki kontuan hartuko direnen aurretik balioetsiko direnak, hauek dira:

- **Ezaugarri teknikoak: 25 PUNTU.**

Eskaintako ekipoen ezaugarri teknikoak balioetsiko dira, hala xasisenak nola kutxenak, eta, besteak beste, alderdi hauek hartuko dira kontuan: trinkotze-gaitasuna hondakin-zatiki bakoitzarentzat (laneko presioen maila eta trinkotze-ratioak); sistema hautatzailearen eraginkortasuna, jaso beharreko zatiki bakoitzarentzat; kaxa garbitzeko erraztasuna; edukiontzia jasotzeko sistemaren zama-ahalmena; materialen gogortasuna; eskaintako multzoaren gehienezko legezko karga onargarria; zama-lanetarako toberaren garaiera (m) eta poltsak eskuz erabiltzeko erraztasuna; segurtasun-sistema material eta immaterialak; industria-higieneko eta ergonomiako sistemak; maniobragarritasuna; modeloen antzintasuna; edukiera-neurriak arteko harremana; potentzia eta momentu eragilearen kurba; koipeztatze-sistema zentralizatuaren irismena eta ezaugarriak; toberaren edukiera; hondakinak prozesatzeko abiadura (m^3/min); prentsaren lan-zikloaren iraupena (segundoak); esekidura-sistema; neurriak;

pixoihalak hartzeko elementuak erabiltzeko erraztasuna; baldintza-agiriko gutxieneko eskakizun teknikoen hobetzea, eta, orokorrean, ekipamenduen kalitate teknikoa, erabilera eta mantentze-lanak hobetzen lagun dezakeen beste edozein alderdi tekniko, operatibo nahiz segurtasunarekin lotura duten alderdiak.

Ingurumen-ezaugarriak: 15 PUNTU

Eskainitako ekipoen ezaugarri hauek balioetsiko dira: zarata maila, zama-kaxaren hermetikotasuna lixibatuak ateratzea eragozteko, lixibatuak bildu eta husteko sistema, ihes-gasen igorpenak, erregai kontsumoa, eta, orokorrean ekipoa erabiltzeak ingurumenean sor ditzaken eraginak gutxitzen lagun dezakeen beste edozein alderdi.

• **Zerbitzu teknikoa. 10 PUNTU**

Kontuan hartuko da lehiaketan parte hartuko duten enpresen prestakuntza eta saldu osteko zerbitzua, lantegi baimendunen sarea, Debagoieneko eremu geografikoarekiko gertutasuna, baliabide materialak eta giza baliabideak, lantegiko pertsonalak enpresako ekipoekin duten esperientzia, ordezkoko piezen biltegiaren kokalekua, eta, orokorrean, ekipamenduen balio bizitzan zehar, zerbitzu tekniko ofiziala hobea izaten lagun dezakeen beste edozein alderdi.

B) Jarraian ageri direnak, automatikoki balioesteko irizpideak dira, eta horretarako, formula hauek erabiliko dira:

• **Eskaintza ekonomikoa: 45 PUNTU**

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoei dagokien puntuazioaren kalkulua eskaintza horietan oinarrituta egingo da, interpolazio lineala aplikatuz P1 puntuak (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 puntuak (0-ko beherapena, puntuazio minimoa) definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barnean.

Aipatu puntuak hauek dira:

P1 – Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, Pmax puntuazio maximoarekin, alegia.

P2 – Lehiaketa neurriari dagokiona, berari emango zaion puntuazioarekin, puntuazio minimoarekin, hau da, formula honen bitartez kalkulatu den puntuazioarekin:

Lehiaketa neurriari dagokion gutxieneko puntuazioa:

$$P_{\min} = P_{\max} \times (1 - B_{\max} \cdot 3)$$

non B_{\max} = eskaintza baxuena

Beharpena (B) honela kalkulatu da: lizitazio neurria ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio neurria.

P_{min} negatiboa balitz, $P_{min}=0$ joko litzateke.

Aipatu zuzena definitzeko, onartutako oinarritzko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Proposamen bat neurritz kanpoko edo ausartegia dela joko da, baldin eta beraren beharpen portzentajeak 10 puntu edo gehiagoz gainditzen badu aurkeztutako proposamen guztien beharpen portzentajeen batez besteko aritmetikoa, eta aitorenaren aurretik, eskaintzaile guztiei informazioa eskatuko zaie, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko ere."

• **Berme aldia**

5 PUNTU

Honela balioetsiko da:

- Berme aldia 2 urtera luzatzea: 1 puntu
- Berme aldia 3 urtera luzatzea: 3 puntu
- Berme aldia 4 urtera luzatzea: 5 puntu

Behin betiko bermea ez da itzuliko proposatutako berme aldia amaitu arte.

8.- Balio-judizioa egin beharra dakarten irizpideekin lotuta aurkeztu beharreko dokumentazio tekniko:

Eskaintutako ekipamenduen ezaugarriak egiaztatu eta ondoen deskribatzen duen dokumentazioa eta informazioa aurkeztu behar da, eta horrela, baldintza-agiri honetan zehaztutako alderdiak balioetsi ahal izango dira; horrez gain, aplikatutako legezko arauak azalduko dira, eta kanpoko entitateen ziurtagiriak nahiz baldintza teknikoen agirian eskatutako informazioa aurkeztuko da.

Informazioa modu sintetiko eta egituratuan aurkeztuko da, eta alde batera utziko dira alferrikako testua eta informazio bikoiztua. Laburpen-taulak, datuak, ziurtagiriak, argazkiak eta deskribapenen planoak aurkeztea oso kontuan hartuko da. Atal bakoitzari lotzen zaion aurkibide batekin egituratuko da dokumentazioa. Informazio osatugabea, kontraesankorra edo nahasia ez da kontuan hartuko.

Segurtasun eta osasun alderdiekin lotuta, hau aurkeztu beharko da:

Laneko segurtasuna: Gidarien, mekanikarien, zamaketarien eta ibilgailuko beste erabiltzaile batzuen lanean arriskuak eragozteko segurtasun-baliabideen zerrenda (hesi materialak eta materiagabeak, itxiturak... eta abar); horrez gain, proposatutako hobekuntzak zehaztuko dira, aplikatutako legezko arauen berri eman eta kanpoko erakundeen ziurtagiriak aurkeztuko dira.

Industria-higienea: Gidari, mekanikari, zamaketari eta ibilgailuaren beste erabiltzaile batzuen higiene-arriskuak (keak, ingurumen-baldintzak, industria-zarata, bibrazioak....eta abar) eragozteko hartutako neurrien zerrenda; horrez gain, proposatutako hobekuntzak zehaztuko dira, aplikatutako legezko arauen berri eman eta kanpoko erakundeen ziurtagiriak aurkeztuko dira.

Ergonomia eta psikosoziologia: gidari, mekanikari, zamaketari eta ibilgailuaren beste erabiltzaile batzuen arrisku ergonomiko eta psikosozialak (eserlekuak, botoien posizioa, enborrekin birak, begiekin birak, posizioa estribuetan, mekanikarien posizioa.....eta abar) eragozteko hartutako neurrien zerrenda; horrez gain, proposatutako hobekuntzak zehaztuko dira, aplikatutako legezko arauen berri eman eta kanpoko erakundeen ziurtagiriak aurkeztuko dira.

9.- Emateko epeak

Gehieneko emateko epea: 180 lanegun esparru-hitzarmen honetatik eratorritako hornidura-kontratu bakoitza sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

10.- Lote bakoitzeko esparru-hitzarmenari amaiera emango dioten enpresaburu kopurua: 1

11.-Behin betiko bermea.

78.000 euro, lote eta esleipendunen artean proportzionalki banatzeko.

12.- Indarraldia:

Esparru-hitzarmen hau bi urtez egongo da indarrean, sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

13.- Kontratuari buruz aurreikusitako aldaketak.

- Egoera hauetan egin ahal izango dira: Kontratazio-organoak, bere kabuz eta kontratistaren adostasunarekin, edo hark eskatuta, esleitutako ondareen berdinak edo antzekoak gehitu ahal izango ditu interes publikoko arrazoiengatik edo teknologia berriarekin nahiz konfigurazioarekin zerikusia duten arrazoiengatik, artikulu berri horiek eskaintzak aurkezteko azken egunaz geroztik merkaturatzen hasi direlako, eta betiere prezioa ez denean esleitutakoa baino %20 handiagoa.

- Gehienez ere kontratuaren prezioaren portzentaje honi eragin ahal zaio: %20

14.- Ordainketa-erregimena.

Ordaintzeko modua: Ibilgailu bakoitza eman eta jaso ondoren.

15.-Prezioak berrikustea.

Ez da egokia.

16.- Zigorrak

Atzerapenagatik: 300 euro atzerapen-egun eta ibilgailu bakoitzeko.

17.- Berme aldia.

Gutxienerako berme aldia URTEBETE izango da, ibilgailu bakoitza jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Eskaintzaileek epe handiagoa proposatuko dute egokia bada.

18.- Kontratazio-mahaia

Kontratazio-mahaia hauek osatuko dute:

Lehendakaria: - Mankomunitateko lehendakaria.

Bokalak: - Ingurumen batzordeko kide bat.
-Ingurumen zerbitzuko arduradun teknikoa.
-Mankomunitateko kontu-hartzailea.
-Mankomunitateko idazkaria.

Idazkaria -Mankomunitateko idazkaria.

3 ERANSKINA
PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaun/andreak, NAN zk.:, bere izenean edo enpresaren ordezkartzan (helbidea:.....);
kalea:; zka.:), honakoa adierazi du:hornitzeko esparru-hitzarmenaren lehiaketa-iragarkia aztertu duela (GAOn, BOEn, EBAOn argitaratua egun honetan:)¹, eta ezagutzen dituela administrazioko baldintza-agirian eta preskripzio tekniko berezien agirian ezarritako baldintzak, eskakizunak eta betebeharrak; horien guztien edukia ezagutzen duela eta guztiz onartzen duela adierazi du, eta jarraian ageri diren ibilgailuez hornitzeko konpromisoa hartzen du, unitateko prezio hauekin eta berme aldi honekin:

Lote zka.	Ibilgailuaren deskribapena	Unitateko prezioa BEZ gabe	BEZ mota (%)	Berme aldia

Elementuei buruzko aldaera bakarra onartuko da gehienez ere lote bakoitzeko, eta baldintza-agiri honetako 11. klausulan ezarritako baldintzetan. Aldaerak aurkeztuz gero, horien xehetasuna azalduko da aurreko koadroan.

¹ Adierazi lehiaketaren berri eman den argitalpen-data ofiziala.

Berriaz jakinarazten da eskaintako prezioak kalkulatzeko kontuan hartu direla esparru-hitzarmenean oinarritutako kontratuak betetzeko beharrezko elementu guztiak, administrazio-klausulen agirian eta preskripzio tekniko berezien agirian aurreikusitakoaren arabera; eta sinatzaileak adierazi du horien edukia ezagutzen duela eta guztiz onartzen duela.

Data eta eskaintzailearen sinadura